



**JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN
ZERBITZURAKO FUNTZIONAMENDU-
PROTOKOLOA
(Familia-arloko jurisdikzioa)**

2019

AURKIBIDEA

1. Familia-bitartekaritza EAEko Justizia Administrazioan	3
1.1. Aurrekariak	3
1.2. Lege-erreformak.....	4
1.3. Zerbitzuaren eta prozeduraren ebaluazioa	9
1.3.1. Zerbitzuen memorien azterketa.....	9
1.3.2. Bitartekarien balorazioak	10
2. PROTOKOLOA	17
2.1.- Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren taxuera (familia-bitartekaritzaren arloa)	17
2. 2.- Familia-bitartekaritza judizialera igor daitezkeen auziak.	18
2.3. Bitartekaritzara bideratu beharreko kasuak hautatzea...21	
2.3.1. Bitartekaritzara bideratu beharreko kasuak hautatzea. ...	21
2.3.2. Deribaziorako prozesu-faseak.	23
2.3.3. Prozesu judizialen deribazio-fitxa, epaitegiak bete beharrekoa. Informazio-saioa.	29
2.4.- Auziak familia-bitartekaritza judizialera bidera ditzaketen organo judizialak.	30
3. Organo judizialak eta Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak auziak elkarri igortzeko eta itzultzeko arauak.....	31
4. Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren funtzionamendurako oinarrizko orientabideak, familia-bitartekaritza judizialeko gaietarako.....	33
5. Bitartekaritzak izan ditzakeen ondorio juridikoak.	35
6.- Akordioen jarraipena egitea.....	36
ERANSKINA	37
JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA, FAMILIA-BITARTEKARITZAN ARITZEN DIREN BITARTEKARIENTZAT ...	37

1. Familia-bitartekaritza EAEko Justizia Administrazioan

1.1. Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko behinolako Euskadiko Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuak (BJZ) familia-arloko jurisdikziora hedatu zuen, 2011ko maiatzean, bitartekaritza intrajudizialeko taldeek EAEko hiru lurralde historikoetan landu zezaketen eremua. Bitartekaritza-kasuak bideratzen dira seme-alaba adingabeak dituzten familien adostasun gabeko banantze eta dibortzioetan, familia-bitartekaritza intrajudizialerako 2011ko maiatzeko Prozeduraren arabera.

Zuzenbide publikoa eta justizia errestauratiboa Justizia Zuzendaritzaren esparruko gaiak izanik, bi arrazoi izan ziren jurisdikzio zibilean salbuespenez esku hartzeko euren kargura seme-alabak dituzten familien banantze- eta dibortzio-auzietan. Alde batetik, bistakoa da banantze- eta dibortzio-prozesu horiek aldean arteko gatazkaz harago eragiten diotela gizarteari: lehendabizi, seme-alaba adingabeei eragiten diete –eta adingabearen interes gorena defendatzea izan behar da irizpide halakoetan–, baina halako prozesuek gatazkak sortzen dituzte familietan eta gizartean, judizializatuak eta oso gatazkatsuak direnean. Bestetik, seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak arautzeko hitzarmenak ez betetzeak zuzen-zuzeneko eragina du, zigor-arloko jurisdikzioan, mantenu-pentsioak ordaintzen ez diren kasuetan eta antzeko gainerako egoeretan.

Familia-bitartekaritzaren helburua da familia- eta gizarte-harremanak leheneratzea, bai eta familiaren etorkizuneko erabakien ardura ematea ere, hura osatzen dutenen elkarbizitza hautsi edo inguruabar pertsonalak edota ekonomikoak aldatu ondoren, seme-alaba

adingabeak edota kalteberatasun bereziko egoeretan daudenak tartean izanda.

Memoriek berretsi egiten dituzte sendotze-prozesua, operadore juridikoenganako konfiantza eta familia-bitartekaritza intrajudizialerako deribazioaren hazkunde etengabea.

1.2. Lege-erreformak

Familia-bitartekaritza intrajudizialerako 2011ko maiatzeko Prozedura adostu zen unean, familia-arloko jurisdikzioan honako hau zen bitartekaritzaren arau-esparrua:

Nazioarteko eremuan:

a) Hagako hitzarmenak:

- Hagako 1980ko Hitzarmena, nazioartean adingabeak lapurtzeari buruzkoa. Gai horien gaineko akordioetara heltzea ahalbidetuko duten mekanismoak ezartzeko eskatzen die estatu sinatzaileei 7. artikuluan.
- Hagako 1996ko urriaren 19ko Hitzarmena, guraso-erantzukizunaren eta adingabeak babesteko neurrien arloko eskumenari, lege aplikagarriari, aitorpenari, betearazpenari eta lankidetzari buruzkoa. Espainiak berretsi egin du.
- Hagako 2007ko azaroaren 23ko Hitzarmena, adingabeen eta familiako beste kide batzuen nazioarteko mantenu-erreklamazioari buruzkoa.
- Azpimarratzekoa da bitartekaritzako jardunbide egokiei buruzko gida, Nazioartean adingabeak lapurtzeak dituen alderdi zibilei buruzko Hagako 1980ko urriaren 25eko Hitzarmenaren barruan sortua. Eskuragarri dago Hagako Konferentziaren Interneteko atarian.

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuari buruzko Hagako Konferentziak sustatutako bi hitzarmen:

- a) Haurren babesari eta nazioarteko adopzioaren arloko nazioarteko lankidetzari buruzko Hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29koa, 1995eko ekainaren 30ean berretsia; eta 2010eko maiatzaren 28ko Hitzarmena, guraso-erantzukizunaren eta haurrak babesteko neurrien arloko eskumenari, lege aplikagarriari, aitorpenari, betearazpenari eta lankidetzari buruzkoa, 2010eko irailaren 6an berretsia.
- b) Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20koa, 1990eko azaroaren 30ean berretsia, eta haren protokolo fakultatiboak.
- c) Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 2006ko abenduaren 13koa (2007ko azaroaren 23ko berrespen-tresna).

Europako eremuan:

Europako Kontseilua:

- a) Europako Kontseiluaren hitzarmenak:
 - Adingabeen adopzioari buruzko hitzarmena, Estrasburgon egina 2008ko azaroaren 27an, 2010eko uztailaren 16an berretsia.
 - Haurrak sexu-ustiapenaren eta -abusuaren aurka babesteko Hitzarmena, Lanzaroten egina 2007ko urriaren 25ean, 2010eko uztailaren 22an berretsia.
- b) Kontseiluaren 2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 (EE) Erregelamendua, ezkontzaren eta guraso-erantzukizunaren arloko eskumenari eta ebazpen judizialen aitorpenari eta betearazpenari buruzkoa, 1347/2000 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.
- c) Europako Kontseiluaren gomendioak. Oinarrizko hiru gomendio, arlo zibilean bitartekaritza sustatzen dutenak:

- 12/1986 Gomendioa, estatu kideetako epaileei agintzen diena, haien zeregin nagusietako bat delakoan, aldean arteko adiskidetasunezko akordioa bilatzea, planteatzen diren auzi guztietan, eta prozesuaren zein fasetan dauden kontuan hartu gabe. Gomendio horrek bideragarritzat jotzen du bitartekaritza, bai prozesuaren aurretik, baita prozesuan eta prozesuaren ondoren ere.
- 1/1998 Gomendioa, 1998ko urtarrilaren 21koa, Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluarena, familia-bitartekaritzari buruzkoa. Estatu kideetako gobernuari eskatzen die familia-bitartekaritza eratzeko eta sustatzeko, edo, egokia izanez gero, lehendik badiren arauak indartu eta sakontzeko eta horiei eutsi behar dieten oinarrizko printzipioak garatzeko. Hori guztia, bitartekaritza baliabide egokitzat jotzen delako familia-gatazkek ebazteko.
- V. liburuak azaltzen du bitartekaritzak zer nolako lotura duen agintaritza judizialaren aurreko edo beste agintaritza eskudun baten aurreko prozedurekin, adierazten du estatu kideek aitortu egin beharko dutela bitartekaritza autonomia dela eta prozedura judizialaren aurretik, bitartean edo ondoren egin ahal izan dela, eta estatu kideei eskatzen die bi prozeduren arteko lotura egokia bermatuko duten mekanismoak ezar ditzatela.
- 10/2002 Gomendioa, irailaren 18koa, arlo zibileko bitartekaritzari buruzkoa. Bitartekaritza sustatzeko garrantzitsuak diren zenbait printzipio azaltzen ditu.

d) Haurren eskubideak erabiltzeari buruzko Europako Konbentzioa, Europako Kontseiluak egin eta 1996ko urtarrilaren 25ean onartua. Konbentzio horrek ere bitartekaritzara jotzea sustatzen du.

e) 2201/2003 Erregelamendua, ezkontzaren eta seme-alaba komunen gaineko guraso-erantzukizunaren arloko eskumenari eta ebazpen judizialen aitortzenari eta betearazpenari buruzkoa. Estatu kideetako agintaritzak zentralak bitartekaritzaren bidez edo beste bide batzuetatik akordioak egitea erraztu behar dutela dio 55.e artikuluan.

Europar Batasuna:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/52/EE Zuzentaraua, 2008ko maiatzaren 21ekoa, auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzaren zenbait alderdiri buruzkoa, funtsezko araua da, estatu kideak behartzen dituena bitartekaritzari buruzko araudiaren transposizioa egitera epe jakin batean.
- Europako Parlamentuaren 2011ko irailaren 13ko Ebazpena, Bitartekaritzaren Zuzentaraua estatu kideetan aplikatzeari, hark bitartekaritzan duen eraginari eta auzitegiek hura onartzeari buruzkoa (2011/2026(INI))

Estatuko araudia:

- 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilarena. Familia-bitartekaritza Prozedura Zibilaren Legean jasota dago 15/2005 Legeak hizpide dugun gaiari buruzko aldaketa egin zuenetik 770.7 eta 777.2 artikuluetan. Lege horrek azken xedapenetatik hirugarrenean ere bitartekaritza aipatzen du, eta bertan arlo hori arautzen duten printzipioak aurreikusten dira.

Autonomia-erkidegoko araudia:

- 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Euskadiko familia-bitartekaritzarena.

- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak arautzen dituena.
- 84/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, EAEko Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea arautzen duena.

2011tik, Protokoloaren xedeari nola edo hala eragiten dioten berrikuntza hauek egin dira araudian:

1. Bitartekaritza eraginkorrerako Nazio Batuen Gidalerroak (2012ko iraila). Ez dira hertsiki familiaren arlokoak, baina garrantzi handia dute bitartekaritza ezagutzeko eta garatzeko.
2. Haurren eskubideak egikaritzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Estrasburgon egin 1996ko urtarrilaren 25ean, eta 2014ko azaroaren 11n berretsia.
3. 5/2012 Legea, uztailaren 6koa, auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzkoa. Espainiako zuzenbidean txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko 2008/52/EE Zuzentaraua, auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzaren zenbait alderdiri buruzkoa. Haren erregulazioa, ordea, Europar Batasunaren arau horren edukiaz harago doa, Banantze- eta dibortzio-gaietan Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen uztailaren 8ko 15/2005 Legearen azken xedapenetatik hirugarrenaren aurreikuspenaren ildotik, zeinean Gobernuari eskatzen baitzitzaion bitartekaritzari buruzko lege-proiektu bat aurkez zezala Gorte Nagusietan.
4. 980/2013 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, gai zibil eta merkataritzazkoetan bitartekaritza egiteari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen zenbait alderdi garatzekoa.
5. Uztailaren 8ko 15/2005 Legearen azken xedapenetatik hirugarrena. Lege hori borondatezko jurisdikzioarena da, Kode

Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen, banantze eta dibortzioaren arloan.


6. 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
7. 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
8. Eusko Legebiltzarraren 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, banantze edo haustura kasuetako familia-harremanei buruzkoa.

Protokoloaren xedeari begira duen garrantziagatik, azpimarratu beharrekoa da goiko 3., 4., 5. eta 8. puntuetan jasotako legeria.

1.3. Zerbitzuaren eta prozeduraren ebaluazioa

1.3.1. Zerbitzuen memorien azterketa

Behean ikus daiteke organo judizialek familia-bitartekaritza judizialera bideratutako kasuen kopuruak izandako eboluzioa:



Honako taula honetan ikus dezakegu zenbat kasu bideratu diren bitartekaritza judizialeko zerbitzuek euren esku-hartzeen xedea hedatu zutenez geroztik:

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	EAE
2012	118	16	56	190
2013	163	92	53	308
2014	283	124	39	446
2015	346	229	48	623
2016	297	194	138	629
2017	305	199	165	669
Guztira	1512	854	499	2865

1.3.2. Bitartekarien balorazioak

BJZko profesional taldeek¹ honela definitzen dute funtzionamendu-protokoloa: familia-bitartekaritza judizialeko prozesu bat garatzeko baldintzak zehazten dituen dokumentua. Segurtasun juridikoa eskaintzen du, eta bitartekariak jarraitu beharreko ildoak ezartzen ditu.

Dokumentuak bide ematen du segurtasuna sentitzeko, bai eta arauen errespetuaren, berdintasun-printzipioen eta jarduteko gutxieneko estandarren bermeak ere. Zenbaitetan hautematen da, ordea, protokoloak berak ataza muga dezakeela, lanaren malgutasuna eta sormena murriztuz. Organo judizialen arteko desberdintasunak hautematen dira haren existentziaren berri jakiteari dagokionez.

Protokoloak euskarri garrantzitsua eskaintzen dio bitartekariari, lan egiteko oinarrizko metodo antolatua eskura jarritz.

Zailtasun hauek hautematen dira:

- Denbora gutxi esku hartzeko (3 hilabete).
- Zerbitzua erabili nahi duten baina seme-alaba adingaberen bat euren kargu edukitzearen baldintza betetzen ez duten

¹ Balorazio hau garai bateko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuko profesional taldearekin batera egin da. Profesional horiei eskertu egin behar diegu eskainitako laguntza eta gogoeta garrantzitsuak.

herritarren zailtasunak zerbitzua jaso ahal izateko (Gizarte Gaietako Sailari esleituta dauden kasuak).

- Seme-alaba adin nagusikoak baina ekonomikoki gurasoen menpekoak (bi gurasoen edo bakar baten menpekoak) dituzten gurasoek zerbitzua jaso ezin izatea. Seme edo alaba bat adingabea duten eta bestea adin nagusikoa duten gurasoek adingabearengatik bakarrik eskatu ahal izatea bitartekaritza. Bistan denez, hori zentzugabea da, are kaltegarria.
- Irabazpidezko sozietatearen likidazioaren negoziazioan jardun ezin izatea. Betiere, etxeko ekonomiari eta ondorioz seme-alaben mantenu-pentsioari eragiten dieten likidazio errazez ari gara.
- Aldeen abokatuek behar ez bezala erabiltzea bitartekarien lana, auzia epaitegira itzultzen denean, akordiorik gabeko emaitzarekin.
- Argitasun falta: ezkontide ohien edo zuzeneko ahaideen artean aldi berean irekitako zigor-arloko prozesuak dauden kasuetan nola jokatu.
- Pertsonen helbiderik edo harremanetarako telefono-zenbakirik ez izateak haiekin zuzenean hitz egitea eragozten du.
- Ez hain gutxitan, letraduak atzera botatzen du informazio-saioaren aurretiko proposamena, eta bitartekaritza-zerbitzuak ez daki beraren bezeroa informatu ote duten epaitegiak eskainitako aukeraz.
- Deribaziorako egokia den prozesuko unea. Familia-harremanei buruzko EAEko legea eta zaintza partekatuaren aldeko haren joera indarrean jarri zirenetik, talka egiten du errealitate sozialarekin, non haurren hazkuntza emakumeei esleitzen baitzaie familia askotxotan. Horrek gurasoen planteamendu kontrajarrietara eramaten du, eta gurasoak ez dira amore emateko prest egoten, epaitegiak behartu ezean. Aurrekoa kontuan izanik, lurralde historikoren batean (Araban) proposatu

zen talde psikosozialaren proba egitea zaintza eredia eztabaidatzen zenean, auzia BJZra bideratu baino lehen, pertsona bakoitzak bere uziaren bideragarritasuna baloratu ahal zezan.

- Konfidentzialtasunaren balizko urratzea. Ikus Eusko Legebiltzarraren otsailaren 8ko 1/2008 Legeak, familia-bitartekaritzarenak, 16.e artikuluan dioena, versus Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 7/2015 Legeak, banantze edo haustura kasuetako familia-harremanei buruzkoak, 9.4 artikuluan dioena.
- EAEko Familia Bitartekaritzaren 1/2008 Legearen 5.4 artikulua. Zehazteko dago zer jotzen den bikotekidearen kontrako indarkeria edo tratu txartzat, eta abar. Beharrezkoa al da aurretiazko entzunaldian kasua egitate frogatu gisa onartzea? Nahikoa al da aldeetako baten erreferentzia?
- Kontuan izanik nahitaez agertu behar dela informazio-saiora (7/2015 Legearen 6.2 artikulua), nola jokatu behar dugu agertzen ez direnean edo letraduek aukera hori ukatzen dutenean? Jasorik utziko dugu itxiera-oharrean? Jaso gabe utziko dugu datu hori?
- BJZren, familia-arloko epaitegien eta Fiskaltzaren arteko koordinazio falta, esku-hartzeko gure irizpideak ezagutzeko, hobetu beharreko esparruak identifikatzeko edo horretarako behar diren neurriak ezartzeko.
- Bitartekaritza-akordioa lortu eta gero, askotxotan letraduek baztertu egiten dute. Noren irizpidea lehenetsi behar da, aldeena edo haien letraduena?
- Gero eta gehiago dira zeharkako familia-bitartekaritzak (parte hartzen duten pertsonak aurrez aurre elkar ikusten ez dutenak).

- Batzuetan ikusten dugu nola erabiltzaileen hurbileko pertsonak boikota egiten dioten bitartekaritzari eta ez diren jabetzen alhora geratu behar direla.
- Epaitegiko deribazioan, erabiltzaileekiko harremanak letraduen bidezkoak dira, eta letraduak zenbaitetan uzkur egoten dira, edo zuzenean erabiltzaileei ukatu egiten diete zerbitzurako irispidea.
- Deribazioan, probidentziak edo ofizioak askotan prokuradoreak baino ez ditu izendatzen, eta haien bitartez jarri behar gara harremanetan letraduekin. Denbora galtzen da.
- Zenbaitetan gizarte-zerbitzuak ere esku hartzen ari dira bideratutako familiekin, eta jarduketa-protokoloa ezarri behar litzateke koordinaziorik eta lankidetzarik eza saihesteko.
- Zorabioak eta hizkera juridikoak kontzeptuak ulertzeko zailtasunak sortzen dizkiete erabiltzaileei.
- Operadoreak (abokatu, funtzionario eta abarrek) ez dute ezagutzen protokoloa.
- Argitasuna falta da, letraduek familia-akordioa jasotzen dutenean bete beharreko funtzioei buruz.
- Epaitegiak: Ez dute protokoloa kontuan hartuta deribatzen; zenbaitetan, ezta identifikazio-datu guztiak jarrita ere.
- Bitartekaritza-akordioa epaitegiari helarazteak botere handia ematen die abokatuei, eta haiek prozesu horretan traba egiten badute, akordioa hautsi daiteke. Zer gertatzen da abokatu batek akordioa bideratzen ez badu? Zehaztu hori
- Ez da argia bitartekaritzaren inpaktu juridikoa zehazteko garaian (etetea, epeak).

Zailtasun eta arrisku horien aurrean, bitartekariak protokolo berrirako prestatutako proposamen eta ideia berri batzuk jaso ditugu:

- Deribazio-ofizioan ikustaldiaren dataren berri ematea.

- Baimen informatuan jasotzea epaitegiak bitartekaritza-zerbitzuari baimena ematen diola epaiaren kopia jasotzeko. Horrek aukera ematen du elkarrizketa-guneek azken emaitzari nola eragiten dioten aztertzeko eta epaiak azkarrago eskuratzeko, Eusko Jaurlaritzaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikak prestatze aldera.
- Talde psikosozialak esku hartu eta gero deribatzea, eta harekiko koordinazioaren dinamika sustatzea.
- Esku hartu ahal izatea herritarrek nahi duten aldi guztietan, salbuespenik gabe.
- Merkataritza-sozietateei eragiten ez dieten ondare-gaiei buruzko negoziazioa posibletzat jasotzea.
- Adin nagusikoak baina ekonomikoki menpekoak diren seme-alabentzako mantenu-pentsioaren negoziazioa posibletzat jasotzea.
- Esku hartzen duten pertsonen helbideak ematea eta epaitegiak pertsonen informazio-oharra bidaltzea familia-bitartekaritzari buruz.
- Deribazio-irizpide orokor gisa ezartzea demandari erantzutearena, salbu eta zaintza eztabaidatzen den kasuetan; horrelakoetan, talde psikosozialaren peritu-frogak euren hasierako jarrerak moldatzen lagun diezaieke pertsona parte-hartzaileei.
- Bitartekarien konfidentziasunari buruzko aipatutako artikuluen arteko kontraesana argitzea. (Familia Bitartekaritzaren otsailaren 8ko 1/2008 Legearen 16.e artikulua versus Eusko Legebiltzarraren 7/2015 Legearen 9.4 artikulua).
- Genero-indarkeriaren arloan familia-bitartekaritza debekatuta egoteari dagokionez (Bitartekaritzari buruzko Legearen 5. artikulua), protokoloan zehaztea auzi penala izapidetzen ari

denean edo epai irmoa dagoenean egongo dela debekatuta. Bestela, borondatez parte hartzeko aukera erreskatatzea.

- Informazio-saiora agertu ezean nola jokatu zehaztea.
- BJZren, familia-epaitegien, Fiskaltzaren, talde psikosozialaren eta Jarraipen Batzordearen arteko koordinazioaren eta truke teknikoaren maiztasuna antolatzea.
- Deribazio-ofizioan ikustaldiaren data jartzea.
- Protokoloan jartzea ezen, alderdiek akordioa sinatu ondoren, itxiera-kopia bidaliko dela epaitegira, akordioaren kopiarekin batera.
- Jarduteko eta gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko protokoloa ezartzea. Hura operatiboa izateko beharrezkoa izango da alde aurretik aldean baimena eta adostasuna.
- Talde psikosozialak emandako txostenak eskuratu ahal izatea, egokitzen jotzen bada, eta aurretik alderdiek baimena emanda, Datuen Babesari buruzko Legea ez urratzeko.
- Deribaziorako ofizio edo probidentzietan letraduen izena eta harremanetarako zenbakia jartzea.
- Argiagoak izatea likidazioaren kontuarekin. Zeintzuk dira adingabeekin zerikusia duten gai ekonomikoak? Askotan beharrezkoa izaten da likidatzea etxeko ekonomia saneatzeko eta mantenu-pentsioaren zenbatekoa ezarri ahal izateko.
- Negoziazioa irabazpidezko ondasunen sozietatearen likidaziora hedatzea seme-alaba adingabeak edota ekonomikoki menpekoak diren adin nagusikoak tartean direnean, baldin eta sozietaterik likidatu beharrik ez badago (hala balitz notarioarengana edo epailearengana jo behar litzateke). Alegia, negoziazioak honako hauek bakarrik ukitzen baditu: aktiboa (ondasun higigarriak —dirua, ibilgailuak eta tresneria— eta higiezinak (familiaren etxebizitza) eta pasiboa (etxebizitza

kargatzen duten hipoteka-maileguak edo mailegu pertsonalak). Bitartekaritzan aztertu ahal izango dira inbentarioaren osaera, balorazioa, zatiketa eta adjudikazioa; gurasoei eragiten dieten eta, beraz, seme-alabengan eragina duten ondasunak/zorrak izateagatik.

- Prestakuntza ematea funtzionario, abokatu, epaile eta gizarte-operadoreei.
- Informazio-guneak familia-epaitegietan, bitartekarien presentziarekin.
- Aldian behin sentibilizazio- eta prestakuntza-jardunaldiak egitea abokatuen elkargoetan.
- Deribatzeke kasuen tipologia handitzea, beste autonomia-erkidego batzuetan, esaterako Gaztela-Mantxan (aitzindaria esparru horretan) edo Madrilen egiten ari diren praktikak kontuan izanik. Hori dela eta, ikus Familia Bitartekaritzaren Gida, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egina.
- Abokatuen elkargoetan bitartekarien lanaren berri ematea, zeinak inoiz ere ez baitakar bezero-galerarik, bitartekaritzataldeak akordioetara iristen laguntzen baitie aldeei, eta akordio horiek idatzi egin behar baitira eta hitzarmen arauemaile batean jaso; abokatu batek bakarrik legeza dezake dokumentu hori, prokuradore batekin batera, Familia Epaitegian. Abokatuek argi eduki behar dute euren lana ez dela inola ere ordezkaturik. Ez dago tartean sartze ilegitimorik. Haien lana osatu eta, auzietako askotan, erraztu ere egiten duen zerbitzu bat baino ez da.

2. PROTOKOLOA

2.1.- Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren taxuera (familia-bitartekaritzaren arloa)

Euskadiko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren mende dago (zehazki, haren Justizia Zuzendaritzaren mende, Lan eta Justizia Saileko Justizia Sailburuordetzan) eta bakarra izango da Euskal Autonomia Erkidego osorako. Hala ere, hiru lurralde historikoetako bakoitzean eta haietako bakoitzeko barruti judizialetan azpiatalak izango ditu eta, zerbitzua emateari dagokionez, independenteki jardun ahal izango dute, baina funtzionamendu- eta harreman-arau berberak betez.

Hartara, zerbitzu bana izango da Lurralde Historiko bakoitzeko, egoitza hiriburuan duela, eta dena delako lurraldean dauden barruti judizial guztiei emango die zerbitzu.

Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak koordinatzaile bat izango du buru; koordinatzaile horrek zuzeneko lotura izango du Justizia Zuzendaritzarekin eta zuzendaritza horren Helduen Justizia Zerbitzuarekin, eta zerbitzuaren jarduera koordinatzeaz arduratuko da. Helduen Justizia Zerbitzuaren burua izango du zerbitzuburu, eta harengana jo beharko da —edo Justiziako zuzendariarengana, bestela— protokolo hau aplikatzean interpretazio-zalantza edo bestelako arazorik sortuz gero. Hona hemen Helduen Justizia Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko datuak:

Justizia Zuzendaritza – Helduen Justizia Zerbitzua

Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: 945 019 432 – Faxe: 945 019 153

Helbide elektronikoa: justiciadultos@ej-gv.es

2. 2.- Familia-bitartekaritza judizialera igor daitezkeen auziak.

Hauek baino ez ditu hartuko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak: organo judizialeetatik datozen auziak, organo judizial horiei demandak edo neurriak planteatu zaizkielako, familia-gatazka bat judizializatuta. Gatazka edo auzi horien sorburu izan daitezke bai bikotea hausteko egoerak —banantzea, deuseztasuna edo dibortzioa —, bai halako prozeduretan hartutako neurri judizialak betearaztearen ondoriozkoak, bai judizialki edo judizioz kanpo onartutako akordioen zirkunstantziak aldatzearen ondoriozkoak.

Muga bakarra izango da: bitartekaritza espresuki debekatuta dago emakumearen aurkako indarkeria sorburu duten auzietan (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter artikuluko 5. apartatua).

Horregatik, Familia Bitartekaritzaren Legean xedatutakoari jarraikiz familia-bitartekaritzara igor daitezkeen gainerako auziak ez ditugu protokolo honetan landuko, eta Lan eta Justizia Sailaren mendeko zerbitzuek ere ez dute esku hartuko auzi horietan, Gizarte Gaietako Sailaren eskumen diren aldetik.

JEZren familia-bitartekaritzako jarduketetan, seme-alaben interes gorena eta ongizatea babestea izango da lehentasun, eta ez da ahaztu behar bai aitak eta bai amak, biek dituztela betebeharrak komunak seme-alaben hezkuntzan eta hazkuntza integrala lortzeko beharrezkoak diren bizi-baldintzak bermatzeari dagokionez.

Gatazka bi helduren artekoa baldin bada, edo seme-alabengan eraginik ez badu, Gizarte Gaietako Sailak bereziki horretarako sortutako zerbitzuetan landuko da bitartekaritza-prozesua, kasu horietan ez baitago arreta berezia eskatzen duen pertsonarik eta, beraz, ez baita ezinbestekoa akordio egonkor eta iraunkorrak lortzea etorkizunean gatazka eta auzi gutxiago sor daitezzen, dela ebazpen

zibilak betearaztean, dela jurisdikzio penalean, familia-betebeharrak ez betetzearekin lotutako delitu eta faltengatiko salaketak jarrita.

Azkenik, eta logikari jarraikiz, alde baten ezgaitasuna judizialki aitortu denean edo izapidetzen ari denean, eta familiaren barruan salaketak edo prozedura judizialak daudenean —emakumearen aurkako indarkeriarekin ez ezik, seme-alaben aurkako edo ordura arte familia-unitatea osatzen zuen beste edozein kideren aurkako indarkeriarekin ere lotuta—, kasu horiek ezin izango dira igorri.

Familia-bitartekaritza esparru zabala izaki, ez dago eragozpenik bi aldeek bitartekaritza-prozesuan adosten duten edozein gai lantzeko. Protokolo honen xedeko bitartekaritza judizialean, ordea, bitartekaritza-prozesuko egoerak eraginkortasun eta efizientzia handiagoz artatzeko asmoz besteak beste, gomendatzen da bitartekaritzako esku-hartzeen tipologia gai gatazkatsu hauetara hedada dila (beste autonomia-erkidego askotan arrakastaz egin den bezala):

- a) Seme-alaba komunen mantenua: bai adingabeena, bai adin nagusikoak baina **ekonomikoki gurasoen menpekoak** diren seme-alabena.
- b) Konpentsazio-pentsioak (seme-alaba komunen bat badago, gai horrek nola edo hala eragin diezaiokeelako).
- c) Familiaren etxebizitzaren erabileraren esleipena.
- d) Zaintza-sistema, eta komunikazio-sistema (bisita-araubidea esaten zaiona).
- e) Bigarren bikotekideen ondoriozko arazoak, zaintza-sistema edo bisita-sistema dela eta.
- f) Aita edo ama atzerritarra izan eta adingaberen bat osteko arriskua dagoenean, edo bestela lurralde nazionaletik irtetea

arautzeko, hitzarmenean ezarritako komunikazio-sistemaren arabera.

- g) Betearazpenpean dauden munta txikiko erreklamazioak.
- h) Egungo auziaren ondoren beste batzuk etorriko direla sumatzen den kasu guztiak.
- i) Pentsioak ez ordaintzea.
- j) Bisita-araubidea ez betetzea.
- k) Familia zabalarentzako bisita-sistema.
- l) Gastu berezien ordainketa.
- m) Ezkontzaren araubide ekonomikoaren likidazioak, errazak baldin badira (hipotekaz kargatutako etxe bat, auto bat edo bi, altzariak eta kontuetako dirua besterik ez duten familiak). Beraz, merkataritza-sozietateak badaude, likidazioak kanpora utz daitezke. Ondasunen eta zorren inbentarioari, balorazioari eta adjudikazioari buruzko akordioak ezar daitezke.
- n) Alderen batek hala adierazia duenean bere alegazio-idazkietan.

Bitartekaritzaren beste esparru batzuetan bezalaxe, organo judizialei eskaintzen zaien aukera sorta zabalaren barruan, familia-bitartekaritza judiziala baliatu nahi dutenek egoki iritzitako auziak igortzeko aukera izango dute, besteak beste irizpide hauei jarraikiz — orientagarriak baino ez dira—:

- Prozesuan parte hartuko duten pertsonen baldintza subjektiboak.
- Gatazka sakonago eta zerikusia duten pertsonentzat modu atseginagoan konpontzeko aukera, zigor-eredu tradizionala alde batera utzita.
- Aldeek Zerbitzura jo nahi izatea.

2.3. Bitartekaritzara bideratu beharreko kasuak hautatzea²

2.3.1. Bitartekaritzara bideratu beharreko kasuak hautatzea.

a) Hautapena egiteko eskumena.

Organo judizialak hautatuko ditu bitartekaritzara bideratu beharreko kasuak. Ebazpen egokiaren bidez, informazio-saio batera joateko gonbita egingo die aldeei eta abokatuei. Epaileak edo Justizia Administrazioaren letraduak izan dezake horretarako eskumena, prozesuko zein unetan erabakitzen den.

Kasua bitartekaritzarako egokia den edo ez baloratzea bitartekariari dagokio azken batean (Bitartekaritzari buruzko Legearen 22.1 artikulua). Hasierako balorazio judiziala beharrezkoa da, ordea, bitartekaritza auzitegiekin lotzen duen atea delako eta aldeei konfiantza ematen dielako, epaileak edo Justizia Administrazioaren letraduak berak gomendatu baitu.

Arretaz hautatu behar dira informazio-saiorako hitzordua ezarriko zaien kasuak, eta saihestu egin behar dira mordokako deribazioak, erakundea porrotera eramango dutelako eta hura izapide huts bihurtuko dutelako. Beraz, demanda irakurri egin behar da, baita erantzun ere, kasua bada. Kanpoan geratzen dira arazo mental larriren bat edo substantzien abusua tartean den kasuak eta genero-indarkeriaren kasuak, legeak berariaz debekatuta. Gogora ekarri behar da abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriarenak, 44. artikuluko 5. apartatuan bitartekaritza debekatu egiten duela horrelako kasuetan.

² Familia Bitartekaritzari buruzko Gida Praktikoaren arabera (BJKN, 2016).

Arazo mentalen bat edo substantzien abusua dagoenean, ez da nahikoa idazkietan hori aipatzearekin, aitzitik, beharrezkoa da arazo larria izatea eta dokumentuetan jasorik egotea. Baliteke, nahiz eta egoera horiek gertatu, arinak badira, subjektuak bere konpromiso-ahalmenari eustea, eta orduan bideragarria litzateke bitartekaritza. Zalantzarik izanez gero, informazio-saiorako hitzordua jartzea gomendatzen dugu, eta azkenean bitartekariak erabakiko du kasua bitartekaritzarako egokia den ala ez. Inguruabar horiek prozeduran jasorik ez egotea gerta liteke, eta halakoetan ere bitartekariak esango dute kasua bitartekaritzarako egokia den ala ez.

Zalantzarik izanez gero, komeni da kasua bitartekaritzara bidaltzea. Esperientzia praktikoak erakusten du ia auzi guztietan nola edo hala onuraren bat lor daitekeela aldeentzat, nahiz eta akordiorik ez lortu. Horregatik, izugarritzko garrantzia du informazio-saiora joan daitezen lortzeak.

b) Nola egin behar den informazio-saiorako deribazioa.

Epaitegiak ebazpen arrazoitu bat emango du kasua Justizia Errestauratiboaren Zerbitzura bideratzeko.

Ebazpen horretan labur azalduko da zertan datzan bitartekaritza, eta gogoraraziko da ez dagoela isilpean gorde beharrik zein alde bertaratu den (Bitartekaritzari buruzko Legearen 17.1 artikulua). Beraz, organo judizialak inguruabar hori baloratu ahalko du gainerako froga-materialekin batera.

Komeni da jakinaraztea ezen, bertaratu nahi ez badute, aldeek euren erabakiaren arrazoiak azaldu beharko dituztela, Prozedura Zibilaren Legearen 414. artikuluko bigarren paragrafoko 1. zenbakian xedatutakoarekin bat.

Ez da prozesua eten beharrik egongo ez badute bi aldeek hala eskatzen, eta, eskatzen dutenean, Prozedura Zibilaren Legearen 19. artikuluan aurreikusitako eperako etetea erabakiko da. Bitartekaritzarako deribazioa autoak eten gabe egiten bada, kontuan hartuko da behar adinako epea behar dela bitartekaritza-saioak egin ahal izateko zitaziotik ikustaldira bitartean.

Epaitegiak deribazio-fitxa igorriko dio Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuari, gutxieneko datuak eskura eduki ditzan. Aldeei informazio-saiorako hitzordua jarriko zaie haien prokuradoreen bidez, pertsonatuta badaude; eta, ordezkariak ez badute, pertsonalki jarriko zaie hitzordua. Komenigarria da, halaber, interesdunei telefonoz deitzea hitzordua berresteko eta bitartekaritzari buruz hizketan hasteko. Telefono-dei hori bitartekariak egin dezakete, eta egiaztatu da oso eraginkorra dela, bi aldeak informazio-saiora ager daitezen.

Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren bidezko zitazioak arrakastarik ez badu, epaitegiari atxikitako funtzionarioek egin ahalko dute, Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuarekin adostutako moduan, zerbitzuak jarritako egunak eta ordutegiak aintzat hartuz. Telefono, fax eta abarren bidez egin daiteke, eta gomendatzen da, beraz, baterako agendak izatea.

2.3.2. Deribaziorako prozesu-faseak.

Lehenik azpimarratu behar da ezin dela jarraibide zehatzik eman, familia-unitatearen inguruabarren eta kasuaren urgentziaren arabera jokatu beharko baita. Prozedura Zibilaren Legeak askatasuna ematen dio organo judizialari. Helburua da, beraz, zer aukera dauden eta bakoitzak zer onura eta eragozpen dituen jakinaraztea. Kontuan izan behar da familia bakoitza eta zerbitzuaren antolaketa bakoitza

besteetatik desberdina dela. Beraz, deribazioa kasu bakoitzaren inguruabarretara moldatu beharko da.

a) Hitzezko judizioan:

Prozedura Zibilaren Legeak honako hau ezartzen du 440. artikuluan: *1. Demandari eta, hala denean, errekonbentzioari edo kreditu konpentsagarriari erantzun ondoren, edo kasuan kasuko epeak igaro ondoren, idazkari judizialak, 438. artikuluan azaldutakoaren arabera ikustaldia egin behar denean, alderdiei hitzordua jarriko die horretarako, hurrengo bost egunetako epean. Entzunaldia hilabete igaro baino lehen egin beharko da. Entzunaldia egiteko eguna eta ordua ezarriko dira zitazioan, eta aldeei jakinaraziko zaie gatazka konpontzen saiatzeko negoziatziora jo dezaketela, baita bitartekaritzara ere, eta, hala egiten badute, ikustaldian azaldu beharko dituztela hartutako erabakia eta horren arrazoiak.*

- Hobe da ahozko judiziorako hitzordua jartzen denean egitea deribazioa, gatazkaren nondik norakoak ezagutu ondoren demandarekin, demandaren erantzunarekin eta, kasua bada, errekonbentzioarekin, ikustaldiaren data ezartzen denetik hura egin arteko tarte hutsak baliatuz.

Ikustaldiaren data ezartzen denetik hura egin arteko tarte hutsak baliatzeko ahalegina egingo da. Informazio-saioa, beraz, ikustaldia baino lehen egin behar da, ahalik eta azkarren, aldeek bitartekaritzaren berri jaso dezaten eta nahi badute prozesuari ekin ahal diezaioten, ikustaldiaren data ezarri aurretik, eta alferrikako etenaldiak saihestuz.

Gomendatzen da bi aldeak autoetan pertsonatuta daudenean egitea deribazioa. Arrazoa zera da, demandatua pertsonatu ez bada nekez agertuko dela informazio-saioa. Baliteke ados egotea ere, eta, beraz, bitartekaritzaren beharrik ez egotea kasu horretan. Bestalde, autoetan demandari aurka egitera pertsonatzeak esan nahi du bi

gurasoek nahi dituztela seme-alabak eta ez direla ados jartzen, eta hori bitartekaritzara bidaltzeko abiapuntu ona da.

- Deribazioa egin daiteke demanda izapidetzeko onartzen den unean, baina azken kasu horretan ez da jakiten zein den demandatuaren posizio prozesala; baliteke demandarekin ados egotea, eta, gainera, demandatua aurkitu ez eta hitzordua galtzeko arriskua ere badago. Hori ez da oztopo, ordea, zerbitzuaren gaineko informazioa eta bitartekaritzari buruzko informazio-orriak erantsi ahal izateko, bai alderdi demandatua epatzean, bai aldi bereko behin-behineko neurrietan agertzeko zitazioetan.

b) Deribazioa egin daiteke, halaber, behin-behineko neurrien fasean: Ikustaldia eten egin daiteke aldeetako batek hala eskatzen badu edo agerraldia amaitutakoan, eta ebazpen-autoan bertan aldeak bitartekaritzara bideratu ahal dira. Neurriak hartzeko dagoen presaren arabera aukeratuko da unea, eta, agerraldia eteten bada, epaileak aldean adostasuna jaso beharko du, aldeek eskatuko baitute autoak eten daitezela bitartekaritzara jotzeko. Edonola ere, agerraldia edo ikustaldia egiten den guztietan, epaileak auzia bitartekaritzara igortzea komeni dela jakinarazi beharko die aldeei eta haien letraduei, eta bitartekaritzaren onurak azalduko dizkie.

- Agerraldian, alde demandatuaren posizioa ezagutu eta aldeak akordiora iritsi ez direla egiaztatu eta gero. Prozedura Zibilaren Legearen 773. artikuluko agerraldian egiten bada deribazioa, hobe izango da aldeak konbentzitzen saiatzea prozedura eten eta bitartekaritzara jotzea komeni zaiela. Izan ere, gerora neurriei buruzko ebazpen-autoa ematen bada, lehendik beste ebazpen bat egoteak abantaila emango dio bertan mesedetutako aldeari, bestearen kaltetan, eta bien arteko berdintasun- edo oreka-egoera

hautsiko du; aldi berean, bitartekaritzara jotzeko asmoa ken diezaieke.

- Bestela, agerraldia amaitutakoan egingo da deribazioa, ebazpen-autoan bertan. Kontuan hartu behar da kasu askotan ezinbestekoa izan daitekeela behin-behineko neurriak ezartzea adingabeen mantenua eta abarrekoak bermatzeko, non eta aldeak bitartekotzara jotzeko prest agertzeak eta biek etenaldia eskatzeak ez duen bermatzen aldeak seguru egotea adingabeen beharrizan horiek aseko direla. Bistakoa denez, noiznahi eska dezakete etenaldia ken dadila, aldeetako batek fede gaiztoz jokatzeko badu etenaldiari onura ateratzen saiatzeko.

c) Halaber informazio-saiorako deribazioa egin daiteke judizio batean froga bat onartu eta ikustaldia eteten bada hura gauzatzeko; adibidez, talde tekniko judizialak irizpena prestatzeko. Froga onartzen denetik epaiketa berriz hasten den arteko denbora hori balia daiteke aldeek bitartekaritza-prozesu bat egin dezaten.

d) Batzuetan komenigarria izaten da deribazioa behin betiko epaian, komenigarritzat jotzen denean aldeen arteko komunikazioa hobetzea seme-alabei dagozkien zenbait kontu tratatzeko, gerora auzirik sor ez dadin. Komenigarritasun hori talde psikosozialaren txostenetik ondoriozta daiteke; talde horrek bitartekaritza ere gomenda diezaieke gurasoei.

e) Epaiaren betearazpenean ere egin daiteke deribazioa, betearazpena abiarazteko unean, betearazpenari aurka egitearen ikustaldian, beharrezkotzat jotzen bada, edo aurka egite hori ebatzen duen autoan, batez ere alde beren arteko hainbat betearazpen daudenean, oporraldi, gastu berezi eta abarreko buruzko akordioetara irits daitezten. Neurri ekonomikoen betearazpena izanez

gero, gomendatzen da bitartekaritzara jotzea betearazpenari aurka egiten bazaio. Justizia Administrazioaren letraduak bitartekotzara bidal dezake beharrezkoa irizten dionean, batez ere neurri pertsonalen betearazpena bada. Betearazpenean bitartekaritzara deribatzeak ez ditu jarduketak etengo.

f) Guraso-ahala egikaritzearen inguruko gatazkak aurreikusten dira Kode Zibilaren 156. artikuluan, lege-testu beraren 158. artikuluko presako neurrietan eta Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legean, adingabeei kalteak ekiditeko eskatutakoak. Halakoetan egin ohi den ikustaldia da bitartekaritzara bidaltzeko une egokia, baina hasierako idazkia ikusita ere deribatu egin daiteke, agerraldiaren data ezartzearen kalterik gabe. Deribazioa egin daiteke, halaber, gatazka ebazten duen autoan, gurasoen arteko komunikaziorik eza, gaizki ulertuak edo horrelakoren bat detektatuz gero.

Ikustaldian edo agerraldian bertan nahiz gerora ematen den ebazpenean egiten bada deribazioa, komeni da epaileak edo Justizia Administrazioaren letraduak bitartekaritzaren onurak azaltzea aldeei, bereziki seme-alabentzako onurak, eta ulertaraztea elkarrekin begirunez komunikatu beharra dutela seme-alabei eragiten dieten kontu guztietan, banantzeak guraso-harreman horren blokeoa eragiten duela batzuetan, eta bitartekaritzak hain zuzen ere egoera hori desblokeatzeko balio duela. Bereziki azpimarratuko da kostuak merkeagoak izango direla, prozedura azkarragoa, eta akordioak erraz bete ahal izango direla.

g) Bigarren auzialdian ere bitartekaritza balia daiteke, eta baditu abantailak lehen auzialdikoarekin konparatuta, aldean egoera pertsonala ez baita izaten demanda aurkeztu zenean bezalakoa. Aldeak itxaropena galduta egon daitezke auzibideak eskain ditzakeen konponbideei buruz. Harremana hautsi zutenetik denbora gehiago igaro da eta baliteke haustura asimilatuta edukitzea; eta hirugarren

abantaila bat ere bada: une horretan aurrez aurre jartzen dituzten desadostasunak txikiagoak izaten dira. Deribazioa egin ahalko da apelazioko erroilua eratzeko antolaketa-eginbidean. Justizia Administrazioaren letraduak paragrafo bat erantsiko du bitartekaritzara jotzeko eta prozesua eteteko aukeraren berri emateko. Ebazpen hori eta txostengilearen izendapena jakinaraztean, erabil daitezkeen bitartekaritza-zentroei buruzko informazio-orria eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bitartekaritzaren berri zabaltzeko egindako triptikoa erantsiko ditu.

Errekurtsoa bideratu bitartean, prozesuko une hauetatik edozeinetan egin ahalko da bitartekaritzarako deribazioa:

Probintzia Auzitegiko arlo zibileko atal egokiko Justizia Administrazioaren letraduak bitartekaritzara bideratu daitezkeen gai guztien berri emango dio erroiluan izendatutako txostengileari, pertsonalki eta zuzenean, auzitegiak alde aurretik finkatutako irizpideen arabera. Erroilua hasten denetik eztabaidarako, bozketarako eta epaitzarako data edo, kasua bada, ikustaldirako data ezartzen den arteko denboran egin beharko da jarduketa hori.

Bigarren auzialdian proposatutako frogari buruz ebazteko unean, froga onartu zein ez, magistratu txostengileak deribatu egingo ditu bitartekaritzarako egokiak diren auziak, eta ematen duen autoan bertan informazio-saio baterako deia egingo die aldeei.

Bai une horretan bai aurrekoan, guztiz eraginkorra gerta daiteke Justizia Administrazioaren letraduarekiko edo magistratu txostengilearekiko bilera batera deitzea bi aldeen abokatuak, balizko eragozpenak desaktibatzeke eta aholkulari juridikoek bezeroei bitartekaritzarako proposamen proaktiboa egingo dietela bermatzeko.

Eztabaidarako, bozketarako eta epaitzarako data edo, kasua bada, ikustaldirako data ezartzeko probidentzian paragrafo bat erantsiko da bitartekaritzara jo eta prozesua eteteko aukeraren berri emango duena. Aldeek eskura dituzten bitartekaritza-zentroei buruzko informazio-orria eta prozesu judizialaren eta bitartekaritza-prozesuaren arteko konparazioa ere erantsiko dira.

Apelazioaren ikustaldian, auzitegiko lehendakariak edo auziko magistratu txostengileak berak informazioa emango die aldeei, eta, kasua bada, bitartekaritzari buruzko informazio-saio batera deituko ditu. Justizia Administrazioaren letraduak jasorik utziko du erabakitako deribazioa.

Ematen diren behin betiko ebazpen judizialen (auto edo epaien) xedapen-zatian, errekurtsoren inguruabarrak ikusita, auzitegiak paragrafo bat gehitu ahalko du aldeei bitartekaritzara jotzeko aukera eskainiko diona, ebatzitakoaren, horren interpretazioaren edo betearazpenaren inguruan haien artean iraun dezakeen edozein desadostasun ebazteko. Gainera, kasuak hala eskatzen badu, bitartekaritzari buruzko informazio-saio batera deituko ditu.

Azken batean, epaileak berak edo, bere eskumeneko gaietan, Justizia Administrazioaren letraduak ebaluatuko du kasu bakoitzean zein den prozesuko unerik egokiena deribazioa egiteko.

2.3.3. Prozesu judizialen deribazio-fitxa, epaitegiak bete beharrekoa. Informazio-saioa.

Informazio-saioa egin ahal izateko, epaitegiak edo, kasua bada, organo deribatzaileak deribazio-fitxa beteko du. Bertan datu hauek azalduko dira:

- Deribazioa egiten duen organo judiziala.
- Prozesu mota eta zenbakia.

- Auzigaiak.
- Prozesuko zein unetan dagoen auzia, eta, kasua bada, hurrengo data-ezartzearen edo egintzaren data.
- Auzilarien datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, telefono mugikorren zenbakiak barne.
- Abokatu edota prokuradoreen datuak.

Fitxa hori Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuari igorriko zaio. Hark fitxa hartu izanaren berri emango du, eta epaitegiari jakinaraziko dio bi aldeak agertu diren edo aldeetako bat bakarrik agertu den, eta, azken kasu horretan, zein alde agertu den eta zein ez. Bi aldeak agertu badira, jakinaraziko du ea bitartekaritzara jotzea erabaki duten edo horrelakorik nahi izan ez duten.

Aldeek ez badute bitartekotzara jo nahi, judizioak aurrera egingo du.

2.4.- Auziak familia-bitartekaritza judizialera bidera ditzaketen organo judizialak.

Lehen auzialdiko epaitegi guztiek igorri ahal izango dituzte auziak bitartekaritzara, baldin eta Familia Zuzenbideko eskumena espresuki esleituta badute; halaber, lehen auzialdiko eta instrukzioko gainerako epaitegiek ere igortzeko aukera izango dute, gaiarekin lotutako auziak ebazten badituzte.

Bitartekaritza bigarren auzialdira hedatzea proposatzen dugunez gero, Probintzia Auzitegiko arlo zibileko atal egokiko Justizia Administrazioaren letraduek ere deribatu ahalko dituzte auziak.

Muga edo salbuespen bakarra, adierazi dugu jada, emakumearen aurkako indarkeriako prozedura bat sorburu duten auzien gaineko debekua da (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter 5 artikulua).

3. Organo judizialak eta Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak auziak elkarri igortzeko eta itzultzeko arauak.

Epaitegiek euren borondatez erabakiz gero Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak eskainitako familia-bitartekaritza erabiltzea, zerbitzu horren esku utziko dituzte, aldian-aldian utzi ere, organo judizialaren egoitzan bitartekaritza-prozesura jotzea erabaki duten aldeei dagozkien auziak.

Zerbitzuko langileek organo judizialaren egoitzara joko dute, organo judizialak eta zerbitzuak berak adosten duten maiztasunarekin jo ere, bitartekaritza-prozesuari ekiteko beharrezkotzat jotako dokumentazioaren kopia eskuratzera; horrekin batera, aldeei eta aldean abokatuei buruzko datuak ere jasoko dituzte, haiekin harremanetan jarri eta lehen informazio-bilera baterako hitzordua finkatzeko.

Oro har, gehienez ere 7 egun balioduneko epea ezarri da beharrezkoa den informazio guztia jasotzeko, betiere aldeek zerbitzura jotzea erabaki duten ikustaldia izan zen egunetik kontatzen hasita; halaber, 7 egun balioduneko epea egongo da lehen bilera finkatzeko.

Bitartekaritza-prozesuak, guztira, ez du hirurogei egun baino gehiago iraungo —PZLk 19.4 artikuluan finkatutako epea baita— aldeek bitartekaritza-prozedurara jotzea erabaki zutenetik kontatzen hasita. Dena den, bitartekaritza-prozesuan indarra duen malgutasun-printzipioa aintzat harturik, ezohiko moduan eta akordioa lortzeko benetako aukerak dituzten kasu zehatzetan, idatziz eskatu ahal izango zaio luzapena epaitegi eskudunari, baina luzapenak ezin

izango du gainditu, inolaz ere, hasieran finkatutako epea. Horretarako, aldean adostasuna beharko da, bai eta Ministerio Fiskalarena ere —baldin badago—, eta legeria prozesal zibilak ezarritakoa beteko da aukera hori baliatzeko moduari eta eskatzaileei dagokienez. Deigarria da nola Eusko Legebiltzarraren otsailaren 8ko 1/2008 Legeak, familia-bitartekaritzarenak, lau hilabeteko epea ezartzen duen (judizializatu gabeko gatazketarako) 23. artikuluan. Alegia, PZLk bi hilabeteko epea ematen du —judizializatutako gatazketarako—, eta Bitartekaritzaren Legeak, berriz, lau hilabeteko epea. Protokolo hori bitartekaritza judizialean diharduten justizia errestitiboko zerbitzuetarako denez, PZLri jarraitu behar zaio, eta, beraz, bi hilabeteko epea dago (60 egunekoa, Legeak dioen moduan). Horrek epea luzatzeko eskaera asko eragin ditzake, eta funtsean epaileek onartu egin behar lituzkete.

Bitartekaritza-prozesua amaitutakoan, kasuan kasuko emaitzarekin (akordioarekin, akordiorik gabe edo hasi gabe), Justizia Errestitiboaren Zerbitzuak prozesuaren ebatzenaren berri emango dio organo judizialari, bide hauetako bat erabilia:

- Epaitegi igorlean zuzenean aurkeztutako idazkia.
- Barruti judizialeko dekanotzan edo erregistro-zerbitzuan zigitatutako idazkia.
- Zerbitzuaren egoitza fisikorik ez dagoen barruti judizialean, barneko postaz bidalitako idazkia.

Zerbitzuaren egoitza fisikoa badagoenean ere erabil daiteke barneko postaren zerbitzua; hain zuzen ere, egoitza hori asteko egun guztietan irekita ez dagoen kasuetan.

Komunikazio horretan, lortutako akordioen kopia —aldeek eta bitartekariak sinatuta— sartu behar da epaitegiarentzat. Argi gera

bedi, dena den, akordiorik ezean, alderdien eta haien abokatuen ardura eskusiboa dela bai hitzarmen arauemailea bai auzi-prozesuarekin jarraitzeko borondatea aurkeztea.

Bitartekaritzan akordiorik lortu ezean, ohar hutsa izango da komunikazioa, eta hau adieraziko du: bitartekaritza-prozesua ez dela burutu, eta aldean esku dagoela prozesu judizialari jarraipena ematea.

Aukera teknologikoek ahalbidetzen duten heinean, baliabide telematikoak erabiliko dira dokumentuak jakinarazteko eta bidaltzeko, baldin eta haien bitartez erdiesten badira protokolo honetan adierazitako helburuak, berme berekin erdietsi ere.

4. Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren funtzionamendurako oinarrizko orientabideak, familia-bitartekaritza judizialeko gaietarako.

Zerbitzuak epaitegiaren deribazio-fitxa, behar duen prozedura judizialaren zatiaren kopiarekin batera, eskuratu eta gero, aldeei eta abokatuei deituko die lehen informazio-saioa elkarrekin egiteko. Saio horrek bi zati izango ditu:

1. Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak alde bakoitza —dagokien abokatuekin— bereiz hartuko du, eta azalpenak emango dizkie: bitartekaritza-prozesuaren ezaugarriak, helburuak, arauak, funtzionamendua, metodologia eta denborak, baita prozesuaren norainokoa eta parte-hartzaile bakoitzaren egitekoa zein den ere.

2. Aldeek bitartekaritza-prozesua onartzen badute, borondatezko baimen informatua eta egoki iritzitako dokumentazioa irakurri eta sinatu beharko dute. Une horretan aurkez daitekeen informazioa ere jasoko da, eta hurrengo saioa edo saioak hitzartu.

Familia-bitartekaritza judizialaren prozesuan gehienez 6 saio egingo dira, lehen aipatu dugun hasierako informazio-saioa barnean hartuta; zenbateko hori gainditu ahal izango da, baina soilik protokolo honen 4. apartatuan aurreikusitako luzapenerako baimen judizialik badago.

Alde batek edo biek prozesuan parte hartzeari uko egiten badiote, Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak horren berri emango dio epaitegiari, aurreko apartatuan zehaztutako bideak baliatuta.

Aldeek bitartekaritza-prozesua onartzea erabakitzen badute, Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak egoki iritzitako saioak antolatu eta garatuko ditu, banakakoak eta aldeen artekoak, betiere honako eskema honen arabera jardunda:

- Informazioa biltzea
- Arazoa zehaztea
- Interesak bilatzea, jarreretatik irtenda
- Bi aldeen onurarako aukerak bilatzea
- Jarrerak berriz definitzea
- Negoziatzea
- Akordioak lortzea

Aldeek akordio eta konpromisoak adosten badituzte, bitartekaritza-dokumentu edo -akordio batean jasoko dira, eta aldeek eta prozesuan parte hartu duten bitartekariak sinatu beharko dute; hartara, bitartekaritza-prozesua amaitutzat joko da.

Akordio hori prozedura judizialera eraman behar da, eta aldean abokatuei helarazi, hitzarmen arauemaile bihur dezaten; horretaz gain, Ministerio Fiskalak adostasuna adierazi beharko du dagokion unean.

Bitartekariak iritziz gero aldeek ez dituztela Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren arauak betetzen, ez dutela akordioaren bat lortzeko benetako borondaterik, edo ezinezkoa dela aldeak akordio batera iristea prozesuaren inguruabar bereziak direla-eta, bitartekaritza-prozesua amaitutzat jo dezake, justifikatutako arrazoiengatik. Erabaki horren berri eman beharko dio organo judizialari, protokolo honetan aurreikusitako edozein metodo baliatuta.

5. Bitartekaritzak izan ditzakeen ondorio juridikoak.

Bitartekaritza judizialeko prozesuan lortutako akordioak auzia deribatu zuen epaitegiari igorri beharko zaizkio legez ezarritako moduan, guraso eta seme-alaben arteko neurriari, banantzeari, dibortzioari edo neurrien aldaketari buruzko hitzarmen arauemaile gisa. Letradu

defendatzaileek izango dute eskumena lortutako konpromiso eta akordioei forma juridikoa emateko eta haiek organoari aurkezteko. Horregatik da garrantzitsua letraduei jakinaraztea bitartekaritzarekiko garrantzizko zeregina dutela eta horrek inola ere ez diela ekarriko bezeroak galtzerik edo intrusismorik.

Legeriak exigitu bezala egiaztatuko du Ministerio Fiskalak hitzarmen arauemailearen edo antzeko dokumentuaren zuzentasuna, eta

eskatzen duen aldiro, igorritako prozeduren egoeraren berri eta egoki iritzitako alderdien berri eman beharko dio Zerbitzuak.

6.- Akordioen jarraipena egitea.

Ez da berriazko jarraipen prozesalik aurreikusi Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuan akordio batekin amaitzen diren kasuetarako; izan ere, ebatzita geratuko dira, auzi-prozesua hitzarmen arauemailearen mendeko adostasun-prozesu bihurtuta.

Etorkizunean gorabeherarik gertatu eta esku-hartze judiziala behar izanez gero, berriro ere Justizia Errestauratiboaren Zerbitzura jotzeko aukera izango da, epaileak egoki irizten badio.

Aurrekoa gorabehera, zerbitzu bakoitzak, premiek eta aukerek ahalbidetzen badute, hauek ezarri ahal izango ditu: barne-jarraipena egiteko formulak, telefono bidezkoak edo baliabide ez-intrusiboen bidezkoak, akordioak betetzen diren ikusteko. Hartara, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzeko modua izango da.

ERANSKINA

JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA, FAMILIA-BITARTEKARITZAN ARITZEN DIREN BITARTEKARIENTZAT

Familia-bitartekaritzako jardunbide egokia deritzogu portaera profesional egokiari lotuta dagoenari, familia-bitartekaritzaren printzipioak, balioak, helburuak eta prozedurak azaltzen dituzten portaera-arau, trebetasun, ideia, baliabide eta tradizioen gainean egituratuta dagoenari.

1. Familia-bitartekaritza errestauratiboak, prozesu judizialaren barruan garatzen denak, arreta berezia jartzen du familia-harremanen errestaurazioan, hirugarren pertsona bitartekariak ahalbidetzen duten lankidetzak- eta elkarrizketa-ingurunean seme-alaben beharrezanean erantzuteko.
2. Familia-bitartekaritzako lanak honako printzipio hauek ditu oinarri (Familia Bitartekaritzaren 1/2008 Legearen 8. artikulua)
 - **Borondatezkoa izatea.** Aldeek askatasun osoa dute prozedura hori aukeratzeko, edozein unetan erabiltzeko edo uzteko, eta azken kasuan ez dute horregatik inolako zehapenik jasoko. Bakar-bakarrik gatazka duten alde guztien adostasunez ekin ahal izango zaio bitartekaritza-prozedurari. Epailleek, egoki iritziz gero, gatazka duten aldeei bitartekaritza-sistemari buruzko informazioa eman ahal izango diete, eta epe horretan, aldeek hala erabakiz gero, etenda geratuko da prozesu judiziala.

Bitartekariak ere borondatez jardun beharko du; izan ere, izendapenari ezetza eman diezaioke, bitartekaritza-prozedura hasteari uko egin diezaioke, edo, behin hasita dagoela, prozedura aurrera eramateko baldintza egokirik ikusten ez badu, eten egin dezake edo amaitutzat eman. Nahitaez uko egin beharko dio bitartekari izateari artikulua honetan azaldutako printzipio gidarietakoren bat betetzen ez dela ikusten badu.

- **Isilpekoa izan behar du.** Bitartekaritza aurrera eramatean bildutako informazio guztia, ahozkoa nahiz agirietakoa, isilpekoa izango da; emaitza ere halakoa izango da, salbu eta aldeek betetzea, berrestea edo homologatzea adosten badute.

Bitartekariak printzipio hori bete gabe utz dezake bakarrik Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan horri dagokionez zehaztuta dauden egoeretan.

- **Gardena izan behar du.** Aldeek informazio zehatza izan behar dute prozeduraren ezaugarriez eta jarduteko moduez, prozeduraren irismenez, ondorioez eta lor litezkeen akordioen balioaz.
- **Zuzenbidea errespetatu behar du.** Aldeek zuzenbideari jarraituz bilatu beharko dituzte gatazka konpontzeko egoki iritzitako irtenbideak. Bitartekaritza ezin da erabili legeria urratzeko edo iruzurra eginez haren aplikazioa saihesteko. Aldeetako batek edo guztiek justiziara jo nahi izanez gero, ezin izango zaie ezein kasutan eskubide hori mugatu.
- **Inpartziala izan behar du.** Bitartekariak ezin izango du pertsona edo alde batenganako interesik izan, beste baten gaintik igarota, lehenengoari onura ekartzeko, eta bere inpartzialtasuna, nahitaezkoa, zalantzan jartzen duen jarduerarik ez du egingo edo sustatuko. Era berean, ezin

izango du portzentajerik gorde bitartekaritzan lortutako akordioaren ondorioz aldeek lor litzaketan onuretatik.

- **Neutrala izan behar du.** Erabakitzeke ahalmena aldeei dagokie. Bitartekariak ezin izango du bere iritzia eman, iradokizunik egin edo akordiorik proposatu, eta aldeek ikuspuntua errespetatu beharko du eta negoziazioan aldeek arteko berdintasuna zaindu. Bitartekariaren egitekoa, bitartekaritzan azterkizun den gaiari dagokionez, aldeek irtenbideak beren kabuz aurki ditzatela lortzea izango da.
- **Malgua izan behar du.** Bitartekaritza-prozedura malgua da, eta horri esker kasuan kasuko egoerara egokitzen da, baina betiere lege honetan jasotako gutxieneko arauak bete beharko ditu, kalitatea bermatzeko.
- **Kontraesaneko eztabaida.** Aldeek aske sentitu behar dute prozedura osoan egoera gatazkatsuari buruz duten ikuspuntua azaltzeko. Bitartekariak berdintasunezko tratua bultzatu behar du aldeek artean, eta haien parte-hartze orekatua bermatuko du bitartekaritzak irauten duen bitartean.
- **Berehalakoa izan behar du.** Bitartekaritzan zuzenean parte hartu behar da, bertan egonda, eta aldeek ezin izango dute bitartekorik izendatu.
- **Aldeek fede onez, lankidetzaz eta errespetuz jokatu behar dute.** Familia-bitartekaritzaren prozesuan parte hartzen duten pertsonen fede onez eta elkarrenganako errespetuaz jokatu behar dute.

3. Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak ezaugarri hauek ditu:

- Zein lurraldetan diharduen, hartan finkatuta eta integratuta dago.
- Gizonezko eta emakumezko kideak dituzten arlo anitzeko lantaldeez osatuta dago.

- Irekita dago, bera partaide duen komunitateko boluntarioek parte hartu ahal izan dezaten.
 - Indarrean den legeria errespetatzea eta familia-bitartekaritza errestauratiboko edozein prozesuren malgutasunaren printzipioa ditu arau.
 - Beraren bitartekaritza-lana gizarte-zerbitzuen sistemarekin (batez ere haur eta familien arloan) eta osasun-sistemarekin lotuta dago eta haien osagarria da hala behar den lekuetan.
4. Familia-bitartekaritzako lana eredu epistemologiko humanista, narratibo, errestauratibo eta eraldatzaileen gainean eraikitzen da:
- Arreta jartzen die zaintzari, errukiari, haurren ongizateari, erantzukizuna hartzeari, guraso eta seme-alaben arteko harreman hondatuen errestaurazioari.
 - Lagundu egiten die pertsona parte-hartzaileei, aliantza errestauratiboa sortuz.
 - Lagungarria da familia ahalduntzeko taldeko elkarrizketa-dinamiken bidez (zirkuluak eta batzarrak), pertsona parte-hartzaileek elkar aitortzeko eta beren balioa handitzeko.
5. Bitartekariak printzipio etiko eta profesional iraunkor eta berrikusgarrietan oinarrituta jarduten du.
- Haren jardunbidea kode deontologiko batean jasota dago.
 - Familia Bitartekaritzaren 1/2008 Legean azaltzen diren eskubide, betebeharrak eta bateraezintasunen arabera jarduten du.
 - Banakoek eta taldeek gainbegiratzen dute aldian behin, eta etengabeko prestakuntzarako saioetan parte hartzen du.
 - Bere bitartekaritza-jarduerari buruzko behaketa eta ikerketa akademikoa onartzen du.
 - Aldian-aldian koordinazio-bilerak egiten ditu Fiskaltzarekin, epaitegiarekin eta zerbitzua finantzatzeko ardura duen gobernuarekin.

- Seme-alaba adingabeen eta desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen interes gorena errespetatzearen printzipioarekiko aliantza iraunkorrari eusten dio.
- Eusko Jaurlaritzan familia-bitartekaritzaren ardura duen sailaren Bitartekarien Erregistroko betekizunak betetzen ditu.

6. Haurren ongizate-beharrizanen errespetuari begira,

- Bitartekaria bereziki arduratzen da familiako haur guztien ongizateaz. Pertsona parte-hartzaileak bultzatu behar ditu haurren beharrizanei begira jardun dezaten, bai eta nork bere beharrizanei begira ere, eta haurraren ikuspegitik aztertu behar dute egoera.
- Bitartekariak pertsona parte-hartzaileak bultzatu behar ditu beren seme-alaben nahiak eta sentimenduak aintzat har ditzaten. Egokia denean, pertsona parte-hartzaileekin eztabaida dezakete ea egokia den haurrak bitartekaritza-prozesuan nahastea eta zenbateraino den egokia dituzten nahiez eta sentimenduez kontsultatzea.
- Inoiz bitartekariak eta pertsona parte-hartzaileek erabakitzen badute bitartekaritzan egokia dela edozein haurri zuzenean kontsultatzea, bitartekaria horretarako trebatu behar da, haurraren baimena lortu behar du eta baliabide egokiak eskaini behar ditu.
- Bitartekariak irizten dionean haurraren ongizatea kalte garrantzitsua jasaten ari dela edo seguru asko kalte garrantzitsua jasango duela, bitartekariak gizarte-zerbitzuengana laguntza bila jotzea gomendatu behar die parte-hartzaileei.
- Bitartekariak irizten dionean parte-hartzaileek familiako edozein haurren ongizateari kalte larria egin diezaiokeen moduan

dihardutela edo hala jarduteko proposatzen ari direla, bitartekariak bertan behera utz dezake bitartekaritza.

7. Familia-bitartekaritza errestauratiboa prestatu eta garatu bitartean, bitartekariak:

- Egoeraren eta parte har dezaketen pertsonen azterketa laburra egingo du, haurraren interes gorena aintzat hartuz.
- Bitartekariaren ekintza profesionalaren ardatza izango da pertsona parte-hartzaileen arteko komunikazio eraginkorrari eta elkarrizketari eusten saiatzea.
- Adorea eta indarra emango die pertsona parte-hartzaileei, eta beren guraso-arduretan ekarpen aktiboa egin dezaten sustatuko du.
- Artatutako pertsona guztien beharrianak orekaz beteko dituen erritmoan kudeatuko du familia-bitartekaritzaren prozesua.
- Ez du bere konponbide propiorik iradokiko.

8. Familia-bitartekaritza errestauratiboko prozesua amaitu eta gero

- Bitartekaritzako esku-hartzean koordinatuta aritu bada osasun-sistemaren batekin edota gizarte-babeseko sistemaren batekin, koordinazioari eutsiko dio.
- Akordioak nola betetzen diren gainbegiratuko du, hala adostu bada pertsona parte-hartzaileen artean.
- Artatutako pertsonen gogobetetasuna ebaluatuko du.

9. Sentiberatasun eta konplexutasun bereziko kasuetan, bitartekaria gai izango da:

- Ziurtatzeko aldeek adostasun osoz eta librez parte hartzen dutela, inola ere ez derrigortuta.
- Haurraren interes gorenaren alde egiten duela zalantzarik gabe erakusteko.
- Bitartekaritza partekatua modalitatean prozesua errazteko.

- Bere buruarengan ondorio psikologikoak behatzeko, eta, behar izanez gero, neurriak hartzeko, gainbegiratzea erabiliz horretarako lagungarri gisa.
10. Bitartekariak honelako balio pertsonalak lantzen dituzte: pazientzia, zintzotasuna, asmamena eta erresistentzia, jakinduria, apaltasuna, barneko isiltasuna eta gogoeta, umorearen zentzu etikoa, sentikortasunez, hurbiltasunez eta begirunez betea.